

## ELIZEN ARTEKO BIBLIA

Arrastion guztioi!

Elizen Arteko Bibliaren lehen argitalpenaren, 1994koaren, Aurkezpenean, Euskal Herriko Gotzainek eta Bibli Elkarte Batuek hau idatzi ziguten: “Argitalpena aparteko esanahia duen gertaera erlijiosoa eta kulturala” da.

Bigarren argitalpenean, 2004koan, Argitalpen Batzordeak, bide bertsutik, hau dio: “Literatura liburu aberatsa eta joria izateaz gain, arnas emaile handia da gizakiak bere baitan bizi dituen galdera sakon-sakonentzat”.

Hari horri jarraituz, lehenik eta behin, obra kulturala da Biblia.

Batetik, osorik nahiz zatika, hainbat mila hizkuntzataraz itzuli izana dago. Alderdi estatistiko eta kuantitatibo horren azpian eta hondoan, ordea, beste bat da arrazoi nagusia, diodana esateko.

Herri baten pentsaera eta mundu-ikuskeraz dator Biblian. Herri baten pentsamoldearen eta jokamolde eta jardueraren isla da Biblia. Itun Zaharrari gagozkiola, judu edo israeldar deitzen dugun herri baten mundu-ikuskeraz ageri da liburuen liburu den Biblian.

Alde horretatik, kristau-fededunak ez ezik, bestelako fededunak nahiz fedegabeak non aztarrika egin handia du Biblian. Gure herriaz Jose Migel Barandiaran batek, esateko, egin duena, edozeinek egin lezake Israel herriaz, besteak beste eta nagusiki, Biblia eskura duela.

Kristau-fededunarentzat, bestalde, Itun Zaharrari gagozkiola, herri batek bere fedearen garapenaz egin duen kronika-edo da: bere fedearen hasi-masitik hasi eta nolabaiteko fede-heldutasunera iritsi den herri baten kronika-edo. Bai Jainkoaren eta gizakien arteko harremanen nolakotasunaren ezagutza teorikoari dagokionez, bai ezagutza horren araberako bizipenei dagokienez. Bibliaren kontuan oso adituak ez garenontzat kronika horren egiazko hurrenkerari antzematea gauza nekoso bada ere.

Itun Berrira joz, berriz, errebelazioak Jesusengan gailurra jo duela dakusagu. Edo ikusi dugula uste dugu. Uste izatetik eta esatetik izatera tarte handia izan ohi baita askotan.

Bi ezaugarri horiez, Biblia errealitate kultural eta erlijioso delakoaz, konbentziturik eta arduraturik, 1970eko hamarkadan Itun Berria eta 1980koan Biblia osoa euskaratzeari ekin zion protestante eta katolikoek osaturiko taldetxo batek. Lau printzipio nagusi izan zituen buruan hasieratik:

- 1) Jatorrizko hizkuntzetatik –hebreera, arameera, greko– euskaratzea, hau da, Bibli bertsio kritiko jakin batetik;
- 2) Itzulpen ekumeniko batera hurbilduz lan egitea: hau da, protestanteen eta katolikoek arteko itzulpena egitea;
- 3) Biblia euskara batuan jartzea;
- 4) Itzulpen formala baino gehiago, itzulpen dinamiko, komunikatiboa egitea, hau da, baliokidetasun dinamiko edo funtzionalaren arabera.

Lehenik, Itun Berria bakarrik plazaratu genuen. Ondoren, Biblia osoa 1994an.

Biblia osoaren lehenengo argitalpena agortu zelarik, bigarrena prestatzeari ekin genion. Lehenago, zer aldatu edo zuzendu asko aurkitu genuen lehenengo Itun Berria-tik Biblia osorako bidean, bai exegesi edo interpretazio aldetik, bai euskararen aldetik.

Geroago, Biblia osoaren lehen argitalpenetik bigarren argitalpena ere zer aldaturik ikusi genuen. Horien horrela, Biblia osoan zer aldatu den?

Exegesi edo interpretazioaren aldetik zer zuzendurik sumatu arren, ez genuen izan ez modurik, ez astirik lan horretan murgiltzeko. Kasu nabarmen bakan batzuk, halere, aldatu ziren.

Euskarari dagokionez aldaketa asko eta asko egin dugu. Bigarren argitalpen honetan, beraz, lan handia eta sakona egin da alde horretatik. Izan ere, bi argitalpenen arteko aldi horretan, 1994tik 2004ra, Euskaltzaindia arau-emaile handi bilakatu zen. Eta EABren itzultzaile-taldearen printzipioetako bat, esana dudanez, Biblia Euskaltzaindiaren arabera euskara batuan ematea izan da, eta da. Argitaratzaileen ekonomi arazoek kaltetan, lehenengo argitalpeneko fotolito bakar bat ere ez zen salbatu. Lan handia eman du eta kostu handia sortu du horrek guztiak, baina pena merezi izan du, euskaldunon mesedetan.

Esan behar da, haatik, puntu bakan batzuetan, gure Biblia honen balizko irakurleei eta Euskaltzaindiaren beraren arauen espirituari garrantzi

handiagoa eman zaiela zuzenketa horiek egitean. Batez ere, arazo onomastikoetan gertatu da hori. Adibidez, Petri ordez Pedro utzi dugu, Marko ordez Markos, Jakue ordez Santiago, Eztebe ordez Esteban, Barnabe ordez Bernabe.

Bestalde, zuzenketa horiez gain, egundoko ekarpena izan da bigarren argitalpen honetan Elizen Arteko Biblia Interneten ezarri edo zintzilikatu izana; Interneten eta CDan. Testu osoa, bai Bibliakoa bai osagarriena, jadanik digitalizatu genuen arren, bere lanak eta bost eman ditu horrek guztiak. Badute horren berri itzultzaileen talde batzuek, baita Madrileko Bibli Elkarte Batukoek -eta zilegi bekita Madrilekoen artean bereziki Isabel emakume leial eta saiatua aipatzea-, baita Eslovenian lan hori bururatu dutenek ere.

CDan Bibliaren euskarazko bertsioa bakarrik ikus daiteke; Interneten eskura dago beste hizkuntza batzuetan ere: eslovenieraz, ingelesez, frantsesez, nederlanderaz, espainolez eta katalanez. Hainbat baliabide eskaintzen ditu Internetekoak.

Azkenik, pozik asko hartu dugu Martzel Etxehandik prestatu duen egokitzapena. Baina horretaz Martzel bera mintzatuko zaigu. Esker beroak berari ekitaldi honetara etortzeko gure erregua onartu duelako.

Halere, gauzatxo bat gehitu nahi nuke Martzelen bertsio hau dela eta. Traduttore traditore delako hura, neurri batean bederen, teorian eta praktikan ontzat ematen dugunok hainbat aldiz jo ohi dugu Bibliaren itzulpen desberdinak mahai zabalean zabaldu eta konparatzera. Hemendik aurrera, euskarazko bi itzulpen, gutxienik, aski era zientifikoan eginak, eskura izango ditugu konparazio hori egiteko orduan. Ahuntzaren gaueko eztula baino zerbait gehiago da hori, nik uste.

Baina, bukatzeko, deitore txiki bat edo iradokizun txiki bat edo eskari txiki bat agertu nahi nuke. Biblia badugu euskaraz. Bertsio bat baino gehiago, gainera. Halere, hutsune bat nabari dut euskaraz, arazo horren inguruan. Biblia errealitate kulturala eta erlijiosoa dela esanez hasi naiz. Beste edozein kulturak bezala, Bibliako herriaren kulturak ere bere argiuneak eta ilunak ditu. Biblian ageri den erlijio-ikusmoldeak ere baditu bere argiuneak eta bere itzalak.

Urrunera joan gabe, eta adibide gisa, joan den igandeko mezako lehen irakurgaietan eta ebanjelioan ageri den txokokeria eta bereizkeria hau: «zuek izango zaituztet herri guztien artean neure jabeko berezia» (Ir 19,5) eta «ez joan jentilen lurraldeetara, ez sartu Samaria herrialdean ere, baizik

eta joan Israel herriko ardi galduengana» (Mt 10,5-6): bereizkeria hori, diot, nola ulertu behar du Biblian lehen aldiz nahiz bigarrenez nahiz hirugarrenez murgiltzen denak, aurrez Bibliarako sarbide on bat eskaini ez bazaio. Nola uztartu hori Mateoren beraren ebanjelioko honekin: «Zoazte, bada, eta egin herri guztiak nire ikasle» (Mt 28,19) delakoarekin, edo Pauloren «Jainkoak ez du bereizkeriarik egiten» (Erm 3,22) delakoarekin? Horretan nabari dut nik, euskaraz, hutsune handia. Bibliarako sarbide xume baino argi, lau-lau baino sakon, erraz eta erakargarri batena. Agian, sarbide bat baino gehiagoren premia. Jendeak non aukeratua izan dezan. Hordago handi samarra, behar bada, gure biblialarientzat, baina premia estukoa.

Eta geldi bedi horretan nire hau. Eskerrik asko entzuteagatik.

Donostian, 2008ko ekainaren 18an  
Dionisio Amundarain